



**JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO JAUNAK, HERRI
ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ETA EUSKO
JAURLARITZAREN IDAZKARI NAIZEN HONEK,**

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak besteak beste erabaki hau hartu zuela 2013ko ekainaren 11n egindako bilkuran:

**ERABAKI-PROPOSAMENA, "X. LEGEGINTZALDIRAKO (2013-2016),
JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOEN EGUTEGIA" ONARTZEN DUENA.**

Politika publikoen plangintza sendotuz joan da, herri-administrazioei dagozkien jarduketak antolatzeko eta koordinatzeko tresna egokia den aldetik. Plangintzak aurrez zehaztutako helburu batzuk dituzten ekimenak, batez ere esparru jakin bati lotutakoak, uztartzen ditu, eta, hori egiten duen neurrian, agerian uzten du ekimen horiek zehaztutako helburuak lortzeko zer koherentzia eta elkarreragin duten.

Era berean, testuinguruari buruzko ikuspuntu anitza (denborazkoa, soziala, ekonomikoa...), aurreko ekimenen diagnostikoa eta denboran zehar plangintzak izango duen bilakaeraren kalkuluak aintzat hartzen dituen aldetik, plangintzari esker hainbat parametroren arabera zehaztu eta diseinatu daitezke ekimenak; eta, horrez gainera, beste gauza garrantzitsu bat egin daiteke: ekimen horiek batera berriz bidera daitezke modu koherentean, errealitatearen garapenaren arabera.

Ildo horretan, administrazio honi dagozkion jarduketa-esparruetan plangintza sendotzeko esker, politika publiko horien koherentzia eta lerrokadura finkatu daitezke, Jaurlaritzaren jarduna zehazten duten erreferenteen arabera. Xede horretarako, Jaurlaritzaren jardunaren errealitateaz eta testuinguruaz haratago (jardun hori gizartean eragina duten askotariko faktoreen arteko elkarreraginaren bidez sortua da, besteak beste, jarduera publikoaren arteko elkarreraginaren bidez sortua), Jaurlaritzaren programa eta Jaurlaritzak egindako gainerako erakunde-dokumentuak ezinbesteko erreferenteak dira Jaurlaritzaren jarduna eratzeke eta antolatzeke, gizarteari egindako konpromisoak jasotzen dituzten heinean.

Plangintzaren abantailengatik eta tresna hori Administrazio Publikoaren jardueran txertatu eta hedatu delako, beharrezkoa da identifikatzea jarduera publikoko zer lehentasunezko arloren bidez emango duen bultzada esanguratsua Jaurlaritzaren jardunak, erakundearen jardueraren koherentzia finkatzeko lanean oreka egokia optimiza eta lor dadin.

Gauzak horrela, 2013ko apirilaren 9ko Gobernu Kontseiluaren ondoren jakitera eman zen X. Legegintzaldiko programa oinarri hartuta, politika horiei lotutako politikak eta planak identifikatu dira, eta euskal gizartearen aurrean hartutako konpromisoen muin garrantzitsuena osatzen dutela ulertu da. Plan horien zerrendaren bidez, jakin daiteke Jaurlaritzaren jardunak zer esparru estrategiko landuko dituen X. legegintzaldi honetan (legegintzaldi honetan "Plan Estrategiko" esan zaie), eta, horren ondorioz, plan horiek oinarri hartuta finkatuko da Jaurlaritzaren ekimenen ikuspuntu anitza eta lerrokadura, jarduera publikoan eraginkortasun eta efikazia handiagoa lortzeko.

Premisa horiei jarraikiz, plangintzak helburu horiek lor ditzan, berrikuntzak sartu dira plan estrategiko horiek egiteko eta izapidetzeko prozesuan. Horretarako, denboran lankidetzaz sustatu eta aurreratu da sail sustatzailearen eta Jaurlaritzaren programaren (Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia) eta ekonomia- eta aurrekontu-egoeraren (Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordetza) ikuspuntutik ikuskera global bat txerta dezaketen arloen artean. Horren bidez, hauek lortu nahi dira: batetik, plangintza estrategikoaren bideragarritasun erreala sendotzen eta



indartzen laguntzea; eta, bestetik, aurkezpen- eta onespren-prozedura dinamizatzea, lankidetzaren bidez informazioaren arteko elkarreragina eta informazioa gehitzea finkatuz, plan horiek zehaztu eta eratzen diren aurretiko uneetatik aurrera.

Hori dela eta, ezinbestekoa da jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak izateko beharra kontuan hartzea eta finkatzea, elementu horiek gabe plangintzak abantaila asko galduko zituzkeen eta. Alde batetik, garatzen joango diren ekimenen bilakaeraren ikuspuntu erreala eta egokia izan behar du Jaurlaritzak; eta bestetik, argi eta garbi jakin behar du zer eragin izan duten ekimen horiek eta zer faktorek izan duten eragina aurretik zehaztutako helburuen betetze-mailan. Azkenik, etorkizunean Jaurlaritzaren jarduna eratzeko ezinbesteko tresna bat ere izan behar du plangintzak, legegintzaldi hau amaitzean erabakiak hartu behar dituenarentzat.

Hala ere, Gobernu Kontseiluak plan estrategiko horiek onartzea finkatzen da, Lehendakariaren ahalen (Jaurlaritzaren jarduna koordinatzekoak) eta Gobernu Kontseiluaren funtzioen (plan horiek ezagutzeko eta eztabaidatzeko) elkargunerako mekanismoa izan dadin, biek izan behar dute-eta planen berri, garrantzitsuak direlako eta Jaurlaritzaren zenbait arlotan eragina dutelako. Ildo beretik, planen garrantziarekiko eta Legebiltzarraren lanarekiko aitortzarekiko koherentzia gordetzeko, planak Legebiltzarrera bidaltzen jarraituko da, Legebiltzarrak erakunde-markoak esleitutako eginkizunak egin ahal izan ditzan.

Azkenik, aitortu zaizkion betebeharrak orokorren artean, Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiari zenbait betebeharrak esleitu zaizkio plangintza errazteko, plangintzari buruzko jarraibideak emateko, eta, azken finean, erabaki honen edukiek zenbateraino eragina izan dezaketen bideratzeko eta argitzeko.

Horri jarraikiz, Lehendakariak proposatuta, eta, eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Erabaki honen eranskin gisa aurkeztutako X. Legegintzaldiko (2013-2016) Plan Estrategikoen Egutegia onartzea, indarrean dauden arloen esleipenaren arabera; plan horrek plan bakoitzaren sail sustatzaileak identifikatzen ditu.

Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatutako Jaurlaritzaren plan estrategikoak izapidetzeko prozedura, erabaki honen II. eranskin gisa aurkezten dena, onartzea. Arau batek ezarritako berariazko prozedura duten Jaurlaritzaren plan estrategikoen arau hori bete beharko dute, eta II. eranskinean zehaztutako prozeduraren bidez osatuko dira, beren araudia urratzen ez den alderdi guztietan.

Hirugarrena.- Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiari "Sailek gobernu-planak egiteko Orientabideak" eguneratzeko agintzea; orientabideok Gobernu Kontseiluak 2010eko apirilaren 23an Planen Egutegien gainean hartutako erabakia betez formulatu ziren. Ekonomia eta Aurrekontuetako Sailburuordetzako organoekin lankidetzan garatuko du egiteko hori.

Laugarrena.- Plan Estrategikoen sail arduradunek memoria bat bidaliko dute urtero Lehendakariaren Idazkaritza Nagusira; memoria horretan, dagokien planean jasotako jarduketak zenbateraino bete diren eta jarduera horiek gauzatzean zer gertaera izan diren azaldu beharko dute, plan horietako bakoitzak jasotako jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak erabiltzeari utzi gabe. Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango dio sailei, Planen Egutegiaren jarraipena egiteko.



Bosgarrena.- Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiak beharrezko neurriak hartuko ditu, erabaki hau garatzeko eta gauzatzeko. Neurri horiek lagunduko diote Lehendakariari Jaurlaritzaren jarduna zuzentzen eta koordinatzen.

Seigarrena.- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bidez, erabaki honetan jasotako Plan Estrategikoen Egutegia eta eranskinak bidaliko dira Eusko Legebiltzarrera, haien berri izan dezan eta abian jar ditzan”.

I. ERANSKINA

JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOEN EGUTEGIA, X. LEGEGINTZALDIRAKO (2013-2016)

Plan Estrategikoak	Plangintza egiteko aurreikusi den epea		Saila
	2013. urtea	2014. urtea	
BAKEA ETA BIZIKIDETZA			
1.- Bakea eta Bizikidetzaren Plana			Lehendakaritza
ENPLEGUA ETA HAZKUNDE IRAUNKORRA			
2.- Enplegua berriz suspertzeko Programa			Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
3.- Industrializazio Plana			Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
4.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana			Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, eta Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
5.- Euskadi Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa			Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila eta Lehendakaritza
6.- IV. Ingurumen Esparru Programa			Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
7.- Euskadiko Berrikuntza Publikoko Estrategia			Herri Administrazio eta Justizia Saila
GIZA GARAPENA			
8.- EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VI. Plana			Lehendakaritza
9.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa			Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
10.- Unibertsitate Plana			Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
11.- Euskadiko Lanbide Heziketako IV. Plana			Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
12.- Segurtasuneko Plan Estrategikoa			Segurtasun Saila
13.- Osasun Plana			Osasun Saila